



GAZTETXOEN ASTEKARIA • 1.178. ZENBAKIA
2025eko abenduaren 18a, osteguna

mantangorri ASTEKO ASMAKIZUNA

Oinak lurrian eta oinak buruan,
plazarik plaza dabil kantuan. **Zer ote?**



**EKHİÑE
ZAPIAIN**
BERTSOLARIA

«Txapelketa
honek pila bat
erakutsi dit»

GORKA RUBIO / FOKU

Asmakizunaren jatorria: Mihi puntaren puntan. Urteari itzulita 365 igarkizunetan. Xabier Olaso eta Higinia Garai (Elkar).


Erantzuna: Bertsolaria. ●●●

ZUEN TXOKOA



Zorionak, **Haize**!! Jadanik 5 urte gure artean, poz handia ematen diguzu. Segi MANTANGORRI irakurtzen. Musuak **aitita eta amamaren partez**.

Zorion agurrak argitaratu ahal izateko, gogoan izan mezuak **astearte arratsaldea baino lehen** jaso behar ditugula. Asteartetik aurrera jasotako mezuak hurrengo asteko zenbakian argitaratuko ditugu.



Elorri Otamendi Otegi



Urte askotarako, **Enetz**! 8 urte zoragarri, gu eta ingurukoak gozarazten. Musu handi-handi bat, **aita-amen, anai-arreben eta aitona-amonen partetik**.



Iraia Zubeldia Goitisol



ZOZKETA

Aupa, lagunok! Zer moduz? Zozketa bat amaitu berritan, beste bat martxan jarri du MANTANGORRIK, Katxiporretako pailazoei esker. Izan ere, **Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek Irri berri** liburuaren sei ale eta **Unibertsoaren sekretuak** karta jokoaren beste sei eman dizkiote MANTANGORRIRI. Lortu nahi badituzue, bidali pailazoentzako marrazkiak mantangorri@berria.eus helbidera **urtarrilaren 6a** baino lehen, eta **urtarrilaren 8ko zenbakian** jakinaraziko ditugu irabazleen izenak. Zorte on guztioi!



MANTANGORRIREN irakurleek **zozketarako bidalitako marrazkiak** dituzue hauek. Mila esker, kuadrilla!

ELKARRIZKETA eta SUPERPOSTERRA

Ekhiñe Zapiain

Bertsolaria

MOTZEAN

- ◉ **Kolore bat?** Laranja.
- ◉ **Plater bat?** Pasta, edozein modutan.
- ◉ **Doinu bat?** *Habanera*.
- ◉ **Oholtza bat?** Bortzirietako edozein.



GORKA RUBIO / FOKU

«Lagunik gabe zaila da aitzinera egitea»

Azaroaren 29an jokatu zuen Nafarroako Bertsolari Txapelketako bere lehen finala Ekhiñe Zapiainek (Bera, Nafarroa, 2002). Alaitasuna transmititu arren, oholtzan asko sufritu zuela kontatu du. Baina bertsolaritza ez da txapelketa bakarrik, eta bertsoaz gozatzen du hortik kanpo ere, lagunei esker.

Irribarretsu zeunden Nafarroa Arenako oholtzan. Nola bizi izan zenuen finala?

Jende pila batek aipatu dit irribarrearena. Akaso eman nuen itxu-

ra pozik nintzela, baina hagitz-hagitz urduri nintzen. Momentu aunitzetan, dezente sufritu nuen urduritasun horrekin. Nik uste dut irribarrea dela nire urduritasuna tapatzeko modu bat.

Zer duzu esateko txapelketan egindako bideaz?

Pila bat erakutsi dit txapelketak, zentzu aunitzetan. Azkenean, aitzakia bat da prestaketa egiteko: zu edozein lehiaketatara aurkeztu zarenean, aprobetxatu nahi duzu zerbait hobetzeko, ikasteko... Uste dut lortu dudala.

Nola prestatu zara horretarako?

Nik kontzentrazioa mantentzen

saiatzean jartzen dut fokua. Ze, bertsotan aritzean, zure kantu-kidea eta gai jartzailea aditzen egon behar duzu, erran nahi duzun hori pentsatzen, bertsoa osatzen... Nola egiten dudan hori?

Bertso eskolan aunitz kantatuta. Munduan pasatzen ari diren gauzei buruz enteratzea ere komeni da, gaiak horiei buruzkoak baitira.

Baina lehiatik harago ere gozatzen duzu bertsolaritzaz.

Bai, nik beti erraten dut bertsolaritza hagitz presente dagoela neure bizitzan, eta badakidala horrela izanen dela, nahiz eta akaso noizbait ez naizen txapel-

ketara aurkeztuko. Pila bat maite dut, eta joaten naiz saioetara, etxean ere aritzen naiz kantari, dutxa azpian ere bai... Gustatzen zait bertso eskoletan biltzea lagunekin, txapelketa ez badago ere.

Bertso irakasle ere bazara. Nola ematen dituzu eskolak?

Pila bat gozatzen dut: uste dut hori dela gehien betetzen nauena. Bertsoak mila modutara jolasteko aukera eskaintzen du: doinuekin, hitzekin, errimekin... Ikustean bertzeek zenbat gozatzen duten niri hainbertze gustatzen zaidan horrekin, hagitz kontent jartzen naiz.

Zure lehen eskolartekoan esperientzia txar bat izan zenuen...

[Barrez] Bai, bai. Eskolartekoa izaten da 15-18 urte artean, baina orduan Nafarroan ez zebilen sobra jende, eta eskatu ziguten 14 urterekin-edo ea animatuko ginen. Saiora bidean, erraten nuen: «Nik argi dut ez dudala kantatuko!». Baina gainerako guztiek kantatu zuten, eta oroitzen naiz bukatu nuela saioa komunean negarrez, erraten: «Ni ez naiz berriz bertso eskolara joanen!».

Baina itzuli zinen.


Bai, eskerrak ez nintzen trabatuta gelditu saio haren ondotik. Niri pila bat lagundu didate bertso udalekuek; lagunak egin nituen, eta lagunik gabe aunitzetan zaila da aitzinera egitea edozertan. Baita bertsotan ere.

Jada Txapelketa Nagusian duzu burua?

Nire helburua da deskantsu pixka bat hartzea, txapelketak asko nekatzen baitu. Gero jada asmoa dut Txapelketa Nagusira begira jartzeko. Beti erraten dut: aste honetan ez hainbertze, baina hurrengoan berriz entrenazera!



GORKA RUBIO / FOKU





**Ekhiñe
Zapiain**

berria



DENBORA-PASAK



1.

Osatu eta margotu. Ekhiñeren marrazkia egiten hasi da Jon, baina ez du bukatzeko betarik izan. **Marraztu falta den erdia, eta margotu.**

2.

Itzalak.

Nafarroako


Bertsolari

Txapelketako


txapeldun

izatearekin amestu du

Ekhiñek. **Itzal hauetatik zein da berea?**



Erantzunak: 2.-D.



3.

Labirintoa. Eskolarteko txapelketan irabazitako txapelaren bila ari da Ekhiñe, baina ez du topatzen. **Lagunduko al diozu bilatzen?**

Azoka



'Gerezi banaezinak'

Gauza garrantzitsu bat ikasi dute gereziek: gainerako fruta eta barazkiekin ere jolas egin dezakete. Zertan dabilta frutak eta barazkiak? Ipuin hauetako fruta eta barazkiek hainbat egoerari aurre egin behar diete egunerokoan, haurrek egiten duten bezala.

Vivim del Cuentu eta Sebastia Serra Bonilla

Argitaletxea: Ibaizabal.



'Benetako zirkua'

Eleberri labur bat da hau. Herri txiki batera zirku italiar bat iritsiko dela eta, haur talde batengan piztutako sentimenduak eta biziko dituzten abenturak biltzen ditu, samurtasunez, umorez eta kritika sozial ukitu batzuekin.

Karmele Mitxelena eta Bruno Hidalgo

Argitaletxea: Elkar.



'Familiartean'

Liburu honetan, hezteko eta ikasteko erronkari aurre egiten dioten familien ohiko egun bat erakusten da. *Familiartean* oinarrizko eskubideetan barnako ibilaldi bat da.

Olga de Dios

Argitaletxea: Denonartean.



'Eraman nazazu zurekin'

Galdera bat egiten zaio irakurleari: pentsatu al duzu inoiz maskota bat edukitzea? Eta, ondoren, umorez, maskota bat zaintzeak ekartzen dituen ardurak izendatzen ditu... Edo agian ez? Norentzat da hasierako galdera? Nortzuk dira maskotak?

Junkal Lertxundi eta Mainer Leturiaga

Argitaletxea: 1545 argitaletxea.



KOPLA ZAHAR BATEN TXORIAK

Testua: **Bakarne Atxukarro eta Fermin Azpilikueta** • Marrazkia: **Kaiet Bengoetxea**

Txepetxa preso

**Txantxangorria txantxate xoxua dela mediante eta birigarroa alkate txepetxa preso sartu dute Txepetxa preso?*

Bai. Urtea bukatzeaz zegoela, gazte batzuk, lizar-makilak eskuan hartuta, txepetx bila atera ziren. Harrapatu, eta kristalezko kaiola batean sartu zuten.

Txoritxoa izuturik zegoen. Ilara batean jarri ziren gazte haiek, eta prozesioan bezala

eraman zuten kaiola, aldare batera heldu arte.

Zer egingo ote zuten? Eguberriak zirenez, txepetxa akabatu behar zutela esan zuten. Hura zela urtea bukatzeko modurik onena, eta bizitzaren zikloa berriro hasteko biderik egokiena.

Txoritxoa izutua baino izutuago zegoen.

Eta, orduan, txantxangorria azaldu zen txantxate, eta hitza hartu behar zuela esan zuen serio.

Handik aurrera bera izango zen nagusia. Baina ez betirako, urtarok pasatu ahala zozoak,



birigarroak eta txepetxak beren tokia hartuko baitute.

Horrelaxe baita euskaldunok bizitzaren zikloa ulertzen dugun modua.

* Kopla zaharra

Amaiera

Berria

matin



matin